



## **“LAN-ESKAINNTZA PUBLIKOETARAKO ETA DESJABETZEETARAKO PUBLIZITATE-AGENTZIAREN ZERBITZUA” KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA**

### **1- KONTRATUAREN XEDEA**

Lizitazio-prozeduraren helburua izango da publizitate-agentzia bat kontratatzea, Desjabetze eta Enplegu Eskaintza Publikoetarako, bere gain har ditzan Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak idatzizko prentsan argitaratu beharreko lan-eskaintza publikoen eta desjabetzeen iragarkiak kudeatu, maketatu eta argitaratzeko lanak bi urtez, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin (1+1), plegu honetan ezartzen diren zehaztapenen arabera.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak iragarkiak sartzeko aginduak emango ditu, datak eta espazioak adierazita, adjudikaziodunak kontratazioa egin dezan.

Publizitate-espazioak komunikabideek bezero guztiei eskaintzen dizkieten tarifa berberetan kontratatuko dira, eta ez dira inola ere errekaru bereziak onartuko.

Komunikabideren batek Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren iragarkiak baldintza horietan argitaratzeari uko egiten badio eta espazio horietarako salbuespenezko errekaruak baditu, erakunde honek eskubidea izango du komunikabide horretan iragarkiak ez argitaratzeko.

Erreferentziatzko tarifarik ez badago, adjudikaziodunak komunikabidearekin negoziatuko du prezioa. Nolanahi ere, espazioak erosi aurretik beharrezkoa izango da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren aurretiazko adostasuna izatea.

Kontratutako agentziak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren izaera korporatiboaren arabera egingo ditu iragarkiak. Testuaren edukiaz eta azken bertsioa prestatzeaz arduratuko da; halaber, sinatutako agiri originalak helaraziko dizkie idatzizko komunikabideei.

Arreta handia jarriko da testuak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren publizitatean ohikoak diren hizkuntzetan (euskara eta gaztelania) behar bezala banatu daitezen. Era berean, hizkuntza ez-sexista erabiltzea zainduko da.

Halaber, agentzia adjudikazioduna iragarkiak argitaratuko diren publizitate-espazioak kontratatzeaz arduratuko da. Kontratutako formatua egokitu beharko da, argitaratu beharreko testua eta edukia aintzat hartuta.

Desjabetzei dagokienez, iragarkiak ez dira inoiz larunbatetan edo igandeetan argitaratuko; astelehenetik ostiralera baino ez.

EPEen kasuan, iragarkiak igandeetan argitaratuko dira beti.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak eskubidea izango du komunikabideekin zuzenean negoziatzeko haien tarifen hobekuntza. Halakorik adosten bada, adjudikaziodunaren bidez agindu ahal izango du publizitatea, eta adjudikaziodunak eskainitako agentzia-komisio bera jasoko du.

Ildo beretik, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak eskubidea izango du iragarkien argitalpena zuzenean askotariko komunikabideekin kontratatze . Kontratu honetatik kanpo geratuko dira publizitate-kanpainen sormen-lanak nahiz horien ekoizpen-lanak, zeinak aparte kontratatu beharko baitira.



## **2.- ENTITATE ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK.**

**A) OROKORRAK:** Oro har, eta plegu honetan berariaz bestelakorik ezarri ezean, adjudikaziodunak hartuko ditu bere gain kontratatutako zerbitzua osorik emateko behar diren gastu guztiak: prestaketa-izapideak, materialak eta instalazioak, mota guztietako aseguruak, eta enpresari dagozkion gainerako karga eta betebeharrak guztiak. Gastu, karga eta betebeharrak horiek bere gain hartuko ditu behin betiko adjudikazioa egiten den unetik, baita kontratuaren edo lizitazioan parte hartzearen ondorioz sortzen direnak ere.

Adjudikaziodunak lortu beharko ditu prestazioa emateko behar diren baimen eta lizentzia guztiak, ofizialak zein partikularrak.

Adjudikaziodunak bere gain hartuko du egiten dituen lanen eta ematen dituen zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, baita kontratua egitean izandako hutsen, akatsen, metodo desegokiak edo ondorio okerren ondorioz Ur Partzuergoari edo hirugarrenei eragindako kalteena ere.

Berre-epea amaitu arte, kontratatutako lanak behar bezala egiteko erantzule egingo da enpresa adjudikazioduna eta lan horietan ager daitezkeen akatsen aurrean erantzun beharko du. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko ordezkariak, lanak egin diren bitartean, lanak edo akatsak aztertu eta aitortzeak, edo egiaztapen, balorazio edo ziurtatze partzialak onartzeak ez du enpresa adjudikazioduna salbuetsiko eta ez dio inolako eskubiderik emango.

Adjudikaziodunak, ordainsari gehigarriak jaso gabe, kontratua behar bezala bete eta garatzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak eman beharko ditu; besteak beste, lan-bileretara eta informazio-bileretara joatea. Betebeharrak horrek berre-epea amaitu arte iraungo du.

**B) ANTOLAKETA:** Enpresa adjudikaziodunak kontratua behar bezala betetzeko behar adina giza baliabide eta bitarteko material izango ditu.

**C) GIZA BALIABIDEAK.** Enpresak kontratu hau betetzeko egin beharreko lanetarako behar adina langile kualifikatu izango ditu.

**D) IRUDI KORPORATIBOA:** Beti erabiliko da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren irudi korporatiboa.

Beste elementu batzuk erabiltzeko, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren berariazko eta idatzizko baimena beharko da.

**E) LARRIALDIAK:** Enpresa-larrialdien edo antzeko beste arrazoiren baten ondorioz adjudikaziodunak ezarritako baldintzetan zerbitzua ezin duela eman uste badu, berehala jakinarazi beharko dio Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, hark behar diren neurriak har ditzan, eragin ditzakeen kalteak saihestu edo murrizteko. Neurriak hartzeagatik sortzen diren gastuak enpresa adjudikaziodunak ordainduko ditu.

**F) BITARTEKO MATERIALAK** Adjudikaziodunak bere gain hartuko du kontratuaren esku jartzen diren bitarteko informatikoak, sareak, materialak eta gainerako azpiegiturak behar bezala erabiltzeko erantzukizuna.

Bilbon, sinaduraren datan

Sin.: Aitor Hormaetxe Basaguren  
Lurzoruaren Kudeaketa eta Diruzaintza Saila